

## **Merkatuaren Segmentazioa:**

Gure bezero nagusiak irakurketa gustuko duten pertsonak izango dira, idazleak barne. Bi motatako bezeroak egongo dira: kontsumitzaileak eta hornitzaileak. Kontsumitzaileak irakurleak izango dira eta haien gustuko liburuak erosi edo irakurri ahal izango dituzte. Liburu, idazle edo genero berriak ezagutu nahi dituzten irakurleak izango dira gure bezeroak, baina aplikazioa edo teknologia erabiltzen jakin beharko dute. Hornitzaileak, berriz, idazleak eta argitaletxeak izango dira eta horrela, haien irakurleen iritziak ezagutu ahal izango dituzte eta haien arteko harremana estutuko da. Irakurleak eskatzen dutenaren arabera jokatu ahalko dute, haien irakurleek paperezko liburuak, audioliburuak, ebook-ak... eskatzen duten arabera; hau da, aplikazioaren eskaria haien eskaintza aztertuz aldatuko da.